

ELKARLANEAN ETORKIZUNA ERAIKITZEN

HISTORIA

- Lehen gela 1970. urtean sortu zen.
- 1976tik aurrera kooperatiba gisa legezatu eta LANGILE izena hartuko zuen esperientzia.
- 1993an Langile Ikastola publikazio prozesuan sartu zen.
- 1996an Ikastolaren proiektua 16 urte arte luzatu zen DBHren ezarpenaren ondorioz.
- 2001ean, DBHen fusioaren ondorioz, Zurtetik- 12 urte bitarteko proiektua bihurtzen da.

EZAUGARRI OROKORRAK

1. BERTAKO KIDEEN ARTEKO ERRESPETUA

Errespetuaren gakoa eskola elkarrekin bizi direnen arteko harremanek definitzen dute. Irakasle eta ikasleen arteko harremanetan nahitaezkoa da elkarri entzutea eta ikasleen partaidetza bermatzea. Printzipio hau oinarritzat hartuta, Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako azken mailaraino proiektu eta ekintza ugari dago gure eguneroko jardunean txertatuta. Honako hauek dira esanguratsuenak:

- **B. Aucouturier ikuspegian oinarritutako psikomotrizitate praktika HH osoan eta LHko 1. mailan**, haurra emozioetatik pentsamendura eramatea oinarri duena.
- **Tutoretzak LH osoan**, bi ordu astean (horietako bata bakarkakoa goiko mailatan), ikasleen arteko harremanak eta emozioen adierazpena landu eta sendotzeko, eta gatazkak bideratzeko.
- **Elkarbizitza proiektua LHn**, gizarteratzean norbanako gisa ditugun ardurak lantzeko, eta irtenbideak kontsensu bidez bilatzen ikasteko.

2. IKASKETA ESANGURATSUA ETA FUNTZIONALA

Ikasgaiak hurbilekoa eta erabilgarria izan behar duela uste dugu. Horretarako baliabide hauen erabilera bultzatzen da.

HIZKUNTZEN ARLOAN:

Hizkuntza ikuspegi komunikatzaile batetik lantzen dugu.

- Lehen Hezkuntzan, euskara, ingelesa eta gaztelania lantzerakoan **”testu pedagogia”** metodologia erabiltzen da: testua da abiapuntua, bai ahoz eta bai idatziz. Egoera komunikatibo bakoitza, testua, progresiboki eta sistematikoki lantzen da, betiere erabilgarria den helburu bati lotuta.
- Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako 1. mailaraino **euskara** da hizkuntza bakarra, eta maila honetan, LHko 2. mailan hasten gara **ingelesarekin**, eta 3. mailan ekiten diogu **gaztelania** lantzeari.

INGURUNEAREKIN LOTUTAKO ARLOETAN:

- **Irteerak** pedagogia jardunaren ohiko ekintzak dira. Haur Hezkuntzan hasi eta Lehen Hezkuntzako azken mailara arte irteera ugari egiten dugu. Ikasgaiei lotutako informazioa esperientziaren bidez jasotzeko aukera ahalbidetzeaz gain, harremanak sendotu eta autonomia garatzeko bitartekoak dira irteerak. Ingurune gertuenekotik hasten gara, urrunduz joateko (auzoa, herria, Euskal Herria...). Iraupen aldetik, ordu batzuetakoak, egun osokoak edo egunetakoak ere izan daitezke.
- Ikasgaiak lantzerakoan **informazio iturri anitzak** erabiltzen ditugu eta jasotzen denarekiko jarrera kritikoa bultzatzen dugu, testu liburu bakarrera mugatu gabe. Horretarako erabiltzen dira: kontsulta liburuak, etxekoek emandako informazioa, teknologia berriak... Gai batzuetan inguruko helduen partaidetza ere bilatzen da (ezagunak, familiakoak, herrikoak, adituak...).
- **Curriculumaren** diseinuan **ikasleen interesguneak** eta **partaidetzak** garrantzi handia dute: lantzen diren gaiak aukeratzerakoan, lantratuak osatzerakoan...
- **Hernaniko eta Euskal Herriko ohiturak ezagutzeko** eta, oro har, kultur ezagutza zabaltzeko, zenbait ekintza antolatzen dugu (antzerkia, bertsolaritza...) eta herrian nahiz ikastolaren bueltan antolatzen diren festetan (Gabonak, Santa Ageda, Kaldereroak, Inauteriak, San Juan sua, Axeri dantza, ikastola eguna...) **parte hartzera bultzatzen** ditugu ikasleak

3. ANTOLAKETA

Ikaslearen garapen intelektuala eta emozionala baldintza egokietan eman dadin honako antolaketa dugu hezkuntza ibilbidearen zehar.

- HHtik hasi eta LHko 4. mailara bitartean **txokotan** antolatzen dugu gela. Era honetan , ikaslearen intereseei erantzun, eta dituzten proiektuak gauzatzea ahalbidetzen dugu.
- LHko 3. zikloan, hizkuntzak, matematika eta ingurunea tailerka antolatzen ditugu. **Tailerria** espazio fisiko bat da, material propio

eta anitzez hornitua, non arloak osotasunean lantzen diren: behatuz, manipulatur, ikertuz, eztabaidatur... **Tailer libreak**, berriz, asteko tailerretako lanak bukatzeko edota gai baten inguruan geratu diren zalantzak bideratzeko ikasleek, ordutegi barruan, dituzten saioak dira.

- Behar eta egoera ezberdinei erantzuteko, **taldekatze malguak** ahalbidetzen dira: bakarka, binaka, taldeka, mailaka...
- Ikasleen gela bilerak (**bilgunea**) proposamenak aurkeztu, lana antolatu eta esperientzien elkar jartzea ahalbidetzen duten guneak dira.
- LHko azken zikloan **ikasleen ordezkari bilerak** ditugu. Hauetan, gela bakoitzeko ikasle bat (ordezkaria) eta irakasleen ordezkaria elkartzen dira zikloan dauden arauak, arazoak, kexak, jaiak... aurrera eramateko, eta geletatik datozen gaiak kudeatzeko.
- Ikastetxea arduratzen da beharrezkoa den materiala erosi eta eskuratzeaz. **Ikasleak ez du material propiorik**. Ikasgeletan, denen eskura dago materiala eta denen ardura da hura behar bezala zaintzea.

4. METODOLOGIAREN TRANSMISIOA

- **Irakasleen artekoa:** Curriculum Batzordea, arloko tailerrak edo mintegiak, ekipo bilerak (mailako irakasle guztiak biltzen dituen) ... **ziurtatzen dute**.
- **Irakasle-gurasoen arteko gela-bilerak:** gela bakoitzeko irakasleak eta gurasoek egiten dituzten bilkurak dira. Irakasleak nahiz gelaburuak deituta, bi eratako gaiak lantzen ditugu: ikasleen hezkuntza prozesua eta metodologia, batetik, eta ikastolaren kudeaketa bestetik.

5. EBALUAZIOA

Bai Haur Hezkuntzan, bai Lehen Hezkuntzan familiei **ebaluazioen berri ahoz** ematen zaie.

Ebaluazioaren ardura ikaslearen **mailako irakasle guztiena** da, eta ikasle bakoitzaren jarraipen sistematikoa oinarritzen gara.

Estrategia eta bitarteko ugari erabiltzen dira ebaluazioa egiteko:

- Behaketa.
- Azken xedeak: gai bakoitzaren bukaeran ikasleek sortzen duten produkzioa.
- Kontrol zerrendak.
- Galdeketak.
- Auto-ebaluazioa ere bultzatzen da, ikaslearen heldutasunaren arabera.